



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Cipián Ansoalde

Kidea/Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 14/2021 ebazpena

Recurso 9/2021 errekurtsua

AVALON TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN SL (aurrerantzean, AVALON) enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen IZFE SA informatika zerbitzuen foru elkartearen (aurrerantzean, IZFE) kontratazio mahaiak 2021eko ekainaren 9an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, laguntza teknikoko, aholkularitzako eta garapen informatikoko zerbitzuak kontratatzekeo esparru akordioko 1. eta 2. sorten lizitazio prozeduratik kanpo utzi zen enpresa. Horri dagokionez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por AVALON TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN, S.L. (en adelante, AVALON) contra el acuerdo de la mesa de contratación de la SOCIEDAD FORAL DE SERVICIOS INFORMÁTICOS - IZFE, S.A. (en adelante, IZFE) de fecha 9 de junio de 2021, por el que se la excluye del procedimiento de licitación de los lotes 1 y 2 del acuerdo marco para la contratación de la prestación de servicios de asistencia técnica, consultoría y desarrollo informático, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Kontratazio organoaren erregistro elektronikoa 2021eko uztailaren 2an aurkeztutako idazkiaren bidez, AVALON enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen ebazpen honen goiburuan aipatutako erabakiaren aurka.

BIGARRENA.- IZFEk, uztailaren 5ean, errekurtsua bidali zion auzitegi honi; hilaren 7an, espedientea, eta 23an, txostena, eta bertan errekurtsua osorik ezesteko eskatu zuen.

HIRUGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.3 artikulua betez, 1. eta 2. sorten adjudikaziodun izateko proposatutako lizitatzaillei helarazi zaie errekurtsua, bost egun balioduneko epean

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro electrónico del órgano de contratación el día 2 de julio de 2021 AVALON interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo citado en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- IZFE remitió el recurso a este Tribunal el día 5 de julio, el expediente el día 7, y el 23 de julio se recibió su informe, en el que solicita la desestimación íntegra del recurso.

TERCERO.- En cumplimiento del artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), se ha dado traslado del recurso a los licitadores propuestos como adjudicatarios de los lotes 1 y 2 para que puedan



alegazioak egin ahal izan ditzaten; epe hori igaro da eta ez da alegaziorik aurkeztu.

formular alegaciones en el plazo de cinco días hábiles, transcurrido el cual no se ha presentado ninguna.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Errekurtsoaren onargarritasuna

Admisibilidad del recurso

LEHENENGOA.- Xedea.

Errekurtsoa jarri da laguntza teknikoko, aholkularitzako eta garapen informatikako zerbitzuak ematea helburu duen esparru akordio bat adjudikatzeko prozeduratik baztertzeko egintzaren aurka; zerbitzu horien balio zenbatetsia 48.000.000 eurokoa da.

PRIMERO.- Objeto.

El recurso se interpone contra el acto de exclusión del procedimiento de adjudicación de un acuerdo marco que tiene por objeto la prestación de servicios de asistencia técnica, consultoría y desarrollo informático con un valor estimado de 48.000.000 euros.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezi bat aurkez zitekeen, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 b) eta 2 b) apartatuetan.

Por lo tanto, el acto es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 b) y 2 b) del artículo 44 LCSP.

BIGARRENA.- Eskumena.

IZFE foru merkataritza sozietateak izapidetutako esleipen prozedura baten barruan emandako egintza baten aurkaratzea denez gero, hura ebazteko eskumena auzitegi honek dauka, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

SEGUNDO.- Competencia.

Tratándose de la impugnación de un acto dictado en el seno de un procedimiento de adjudicación tramitado por la sociedad mercantil foral IZFE, la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

HIRUGARRENA.- Epea.

Errekurtsoa SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun baliouduneko epean jarri da, errekurritutako akordioa ekainaren 14an jakinarazi zela kontuan hartuta.

TERCERO.- Plazo.

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que el acuerdo recurrido fue notificado el día 14 de junio.

LAUGARRENA.- Legitimazioa

Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan

CUARTO.- Legitimación.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el



xedatutakoaren arabera, lehiatu den lizitazio batetik bere baztertea errekurritzen duelako.

Auziaren mamia

BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa.

IZFEko Administrazio Kontseiluak 2020ko abenduaren 29an hartutako erabakiaren bidez, laguntza teknikoko, aholkularitzako eta garapen informatikoko zerbitzuak kontratatzeko esparru akordio bat egiteko kontratazio espedientea onartu zen.

Administrazio klausula partikularren agiriko (AKPA) ezaugarrien koadroko 3. atalean bost sorta ezarri dira, eta, orientazio gisa, esparru akordioaren xedearen banaketa ehunekoak ezarri da horien guztien artean:

Garapen arloa:

- 1. sorta: aplikazioen aholkularitza, garapen, mantentze eta euskarri zerbitzuak ematea (% 75).
- 2. sorta: IT arkitekturako elementu komunen aholkularitza, garapen, mantentze eta euskarri zerbitzuak ematea (% 10).

Sistema, azpiegitura eta eragiketen arloa:

- 3. sorta: sistema-zerbitzari eta biltegitratzearen arloko laguntza teknikoko zerbitzuak ematea (% 3).
- 4. sorta: mikroinformatika arloko laguntza teknikoko zerbitzuak ematea (% 3).

Euskarri eta *service desk* arloa:

- 5. sorta: euskarri informatiko eta funtzionalaren esparruko zerbitzuak, kanal anitzeko zerbitzu gisa ezarrita (% 9).

artículo 48 LCSP, dado que impugna su exclusión de una licitación a la que ha concurrido.

Fondo del asunto

QUINTO.- La actuación recurrida.

Por acuerdo del Consejo de Administración de IZFE de 29 de diciembre de 2020 se aprobó el expediente de contratación para la conclusión de un acuerdo marco para la contratación de la prestación de servicios de asistencia técnica, consultoría y desarrollo informático.

En el apartado 3 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) se establecen cinco lotes y, con carácter orientativo, el porcentaje de distribución del objeto del acuerdo marco entre todos ellos:

Área de desarrollo:

- lote 1: prestación de servicios en el ámbito de la consultoría, desarrollo, mantenimiento y soporte de aplicaciones (75%).
- lote 2: prestación de servicios en el ámbito de la consultoría, desarrollo, mantenimiento y soporte de elementos comunes de arquitectura TI (10%).

Área de sistemas, infraestructuras y operaciones:

- lote 3: prestación de servicios en el ámbito de la asistencia técnica en Sistemas - Servidores y almacenamiento (3%).
- lote 4: prestación de servicios en el ámbito de la asistencia técnica en Microinformática (3%).

Área de soporte y *service desk*:

- lote 5: servicios en el ámbito del soporte informático y funcional, establecido como un servicio multicanal (9%).



Lizitatzailleek sorta guztietan edo batzuetan parte har dezakete, eta horien adjudikazioa independentea izango da. Esparru akordioan gehienez zortzi enpresa sartuko dira 1. eta 2. sortetako bakoitzean, eta bost enpresa, gainerako bakoitzean.

AKPAko ezaugarrien taulako 19.1.2 atalean 49 puntu gordetzen dira balio judizioen bidez baloratu beharreko irizpideetarako, eta 51 puntu formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideetarako. Lehenengo taldearen barruan, 29 punturekin baloratzen da eskaintzaren kalitate teknikoa, eta 20 punturekin, berriz, zerbitzuaren prestazioa gauzatzeko planteamendua. Bi irizpide horiek, era berean, adierazitako azpi-irizpideetan banakatuta daude.

Lizitatzaileren proposamenen balorazioa agirian aipatzen eta definitzen diren sei kalifikatzaileetako batean kokatu behar da, bakoitzari dagokion haztapen faktorea adierazita: bikaina (% 100), ona (% 75), ertaina (% 50), oinarritzkoa (% 20), minimoa (% 5), eta ez da aurkezten edo ez dagokio (% 0).

Agiriak, halaber, zehazten du lizitazio prozeduratik kanpo geldituko direla balio judizioen bidez baloratu beharreko irizpideetan gutxienez 30 puntu lortzen ez duten lizitatzailleak.

1. sortan hogeita hiru enpresak aurkeztu zuten eskaintza; 2. sortan, hogeik; 3. sortan, hamabik; eta hamarna enpresak 4. eta 5. sortetan.

Kontratazio mahaiak, 2021eko ekainaren 9an, BI zenbakiko artxibo elektronikoa jasotako dokumentazio teknikoa kalifikatu zuen, eta, aurkeztutako eskaintzen balorazio teknikoari buruzko txostenen arabera, balio judizioaren pean jarritako irizpideei zegozkien puntuazioak eman zituen.

Errekurtsogileak 29 puntu lortu zituen parte hartu zuen bi sortetan, bai 1.ean, bai 2.ean; beraz,

Los licitadores pueden concurrir a la totalidad o a alguno/s de los lotes, siendo independiente la adjudicación de los mismos, y serán incluidas en el acuerdo marco un máximo de ocho empresas en cada uno de los lotes 1 y 2, y de cinco empresas en cada uno de los restantes.

En el apartado 19.1.2 del cuadro de características del PCAP se reservan 49 puntos a los criterios a valorar mediante juicio de valor y 51 puntos a los criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas. Y dentro del primer grupo se valora con 29 puntos la calidad técnica de la oferta y con 20 puntos el planteamiento de la ejecución de la prestación del servicio, ambos criterios desglosados a su vez en los subcriterios que se señalan.

La valoración de las propuestas de los licitadores debe encuadrarse en alguno de los seis calificativos que el pliego menciona y define, cada uno con su correspondiente factor de ponderación: excelente (100%), buena (75%), media (50%), básica (20%), mínima (5%) y no se aporta o no corresponde (0%).

El pliego prevé asimismo que se excluirá del procedimiento de licitación a aquellos licitadores que no obtengan un mínimo de 30 puntos en los criterios a valorar mediante juicio de valor.

Al lote 1 presentaron oferta veintitrés empresas, al lote 2 veinte, al lote 3 doce, y diez empresas a cada uno de los lotes 4 y 5.

El 9 de junio de 2021 la mesa de contratación procedió a la calificación de la documentación técnica contenida en el archivo electrónico nº DOS y, de acuerdo con los informes de valoración técnica de las ofertas presentadas, otorgó las puntuaciones correspondientes a los criterios sometidos a juicio de valor.

La recurrente obtuvo 29 puntos tanto en el lote 1 como en el lote 2, únicos lotes en los que



eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen ez zenez, mahaiak baztertutzat jo zuen.

SEIGARRENA.- Errekurtsogilearen jarrera.

Errekurtsogileak bere errekurtsuaren arrazoi bakartzat alegatu du kontratazio mahaiak bere proposamena baloratzean akatsa egin duela, zehazki, azpi-irizpide hauetan: “*SQA softwarearen kalitatea ziurtatzea*”, “*zerbitzu mailako akordioa (ZMA) modalitatean zerbitzuak eskaintzeko proposamen metodologikoa*” eta “*esparru akordioari atxikitako pertsonak trebetasunetan, teknikan eta euskaraz prestatzeko konpromisoa*”. Bere ustez, azpi-irizpide horiek aplikatuz, bere eskaintzari eman zaion kalifikazioa ez da zuzena, «ertaina» kalifikazioa (% 50) jaso ordez, «ona» kalifikazioa jaso behar baitzuen (% 75). Horregatik, eskatzen du errekurtsua baiets dadila eta, baztertzeko erabakia deuseztatu ondoren, prozeduraren atzeraeragina agindu dadila, bere eskaintza behar bezala baloratzeko.

Ez dago ados aipatutako azpi-irizpideetan bere proposamenak kalitate edo balio handiagorik ematen ez duela dioen iritziarekin; izan ere, bere iritziz, alde batetik, bere proposamenak eskatutakoari erantzuten dio eta balio handia ematen dio; eta, bestetik, baloratu beharreko dokumentazioak ezin zenez 50 orrialde baino gehiago izan, atal horietan ez ditu errepikatu eskaintzaren beste alderdi batzuetan jorratu diren alderdiak, SQA softwarearen kalitatea bermatzeko ere balio dutenak edo ZMA modalitatean zerbitzuak emateko beren proposamen metodologikoaren parte direnak.

“*Esparru akordioari atxikitako pertsonak trebetasunetan, teknikan eta euskaraz prestatzeko konpromisoa*” azpi-irizpideari dagokionez, ez dago ados bere proposamenak ez duela balio erantsi nabarmenik ematen dioen iritziarekin; izan ere, bere ustez, bertan xehetasunez deskribatzen da pertsonen kudeaketa integrala eta, prestakuntza planari berari dagokionez, taldeko pertsonentzako ordukako prestakuntzako konpromisoaz gain (kosturik gabe

participaba, por lo que al no superar la puntuación mínima exigida la mesa la declaró excluida.

SEXTO.- Posición de la recurrente.

La recurrente alega como único motivo de su recurso el error en la valoración de su propuesta por parte de la mesa de contratación, concretamente en los subcriterios denominados “*aseguramiento de la calidad del software SQA*”, “*propuesta metodológica para proveer servicios bajo la modalidad de acuerdo de nivel de servicio (ANS)*” y “*compromiso de formación en habilidades, técnica y en euskera a las personas adscritas al acuerdo marco*”. Considera que en aplicación de esos subcriterios su oferta debe recibir la calificación de “buena” (75%) y no de “media” (50%), que es como ha sido valorada. Por ello solicita que se estime el recurso y, con anulación del acuerdo de exclusión, se ordene la retroacción del procedimiento para la debida valoración de su oferta.

No está de acuerdo con la apreciación según la cual en los citados subcriterios su propuesta no aporta mayor calidad ni valor, ya que entiende, por un lado, que su propuesta responde a lo requerido y aporta un valor considerable y, por otro, que la documentación a valorar no podía tener más de 50 páginas, y por esa razón no se han repetido en esos apartados aspectos ya tratados en otros de la oferta que redundan igualmente en el aseguramiento de la calidad del software SQA o que también forman parte de su propuesta metodológica para proveer servicios bajo la modalidad ANS.

En cuanto al subcriterio “*compromiso de formación en habilidades, técnica y en euskera a las personas adscritas al acuerdo marco*”, tampoco está de acuerdo con que su propuesta no aporta valor añadido destacable, ya que considera que en ella se describe en detalle la gestión integral de personas y, en cuanto al plan de formación propiamente dicho, además del compromiso de formación en horas para las personas del equipo sin coste para IZFE, contiene propuestas de valor añadido a los planes de



IZFErentzat), proposamenak jasotzen ditu profilaren eta profesionalaren arabera berariazko prestakuntza planei balio erantsia emateko. Hizkuntzei buruzko prestakuntzari dagokionez, zehazki euskarari dagokionez, adierazi du hizkuntza eskola ofizialen, ziurtagirien eta/edo azterketa ofizialen ordainketa estaltzen dituela.

Horrez gain, adierazi du hiru atal horietan bere eskaintzak beste eskaintza batzuen balorazioan «ona» edo «bikaina» kalifikazioa lortu duten alderdiak dituela.

ZAZPIGARRENA.- Kontratazio organoaren jarrera.

Errekurtsoa dela-eta IZFEk egindako txostenean, aldez aurretik, diskrezionalitate teknikoaren doktrina aipatzen da, bai eta kontratu errekurtsoen organoek balio judizio baten mende dauden irizpideen balorazioari dagokionez egin dezaketen berrikuspenaren edo kontrolaren norainokoa ere; izan ere, alderdi formaletara mugatu behar da, hala nola eskumen edo prozedura arauetara, balorazio txostenaren motibaziora, eta arbitrariotasunik, diskriminaziorik ez akats materialik ez dagoela zaintzera.

Txostenak dioenez, errekurtsogileak kontratazio mahaiaren iritzia ordez berea jarri nahi du; eta, beste lizitazaile batzuen eskaintzetan errekurtsogileak berak ere aurkeztu zituen zenbait alderdi positiboki baloratu dituela dioen baieztapenari dagokionez, txostenak dio baloratu dena ez dela izan alderdi horiek besterik gabe eskaini izana, baizik eta eskaintza bakoitzean ematen zaien edukia. Mahaiaren helburua da aurkeztutako eskaintzak elkarren artean alderatzea, eta balorazioa lizitazaile bakoitzaren eskaintza osoa kontuan hartuta egin da.

Kontratazio organoari deigarria iruditzen zaio errekurtsogileak bere eskaintza beste lizitazaile

formación específicos por perfil y profesional. En cuanto a la formación en idiomas, en concreto en euskera, indica que cubre el abono de la escuela oficial de idiomas, las certificaciones y/o exámenes oficiales.

Adicionalmente afirma que en esos tres apartados su oferta incluye aspectos que en la valoración de otras ofertas han alcanzado la calificación de “buena” o “excelente”.

SÉPTIMO.- Posición del órgano de contratación.

En el informe emitido por IZFE con ocasión del recurso se alude, con carácter previo, a la doctrina de la discrecionalidad técnica y al alcance de la revisión o control que los órganos de recursos contractuales pueden llevar a cabo respecto de la valoración de los criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor, en el sentido de que debe limitarse a los aspectos formales, tales como las normas de competencia o procedimiento, la motivación del informe de valoración y a cuidar de que no se incurra en arbitrariedad, discriminación o error material.

Dice el informe que la recurrente pretende sustituir el juicio de la mesa de contratación por el suyo propio; y respecto a la afirmación según la cual la mesa ha valorado positivamente en las ofertas de otros licitadores determinados aspectos que la recurrente también incluía en la suya, el informe señala que lo que se ha valorado no ha sido el hecho de que se hayan ofertado, sin más, esos aspectos, sino el contenido que se les da en cada oferta. La finalidad de la mesa es comparar entre sí las ofertas presentadas y la valoración se ha realizado teniendo a la vista la oferta de cada licitador en su integridad.

Le llama la atención al órgano de contratación que la recurrente pretenda que su oferta se califique



batzuen bezala kalifikatzea nahi izatea, haiek ikusteko aukerarik izan ez badu.

Azkenik, txostenaren arabera, errekurtsogileak bere iritzi partziala eta subjektiboa adierazi du, eta ez du egiaztatu edo mugatu bere eskaintzaren zein alderdi zehatzek mereziko luketen puntuazio handiagoa. Horrek, diskrezionalitate teknikoaren doktrinarekin batera, errekurtsua ezestea ekarri behar du; izan ere, prozedura eta eskumen arauak errespetatu dira, ez da akats materialik edo egitezko akatsik egin, eta balorazioa egitean ez da arbitrariotasunik edo diskriminaziorik egon.

Auzitegiaren oharra

ZORTZIGARRENA.- Kontratazio organoak txostenean adierazten duenez, errekurtsua ebatzeko, kontratazio organoek duten diskrezionalitate teknikoaren printzipioa hartu behar da abiapuntutzat automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideak baloratzeko.

Doktrina jurisprudenzialak behin eta berriro esandakoaren arabera, diskrezionalitate tekniko horrek ez du babesten bertan oinarritu nahi den edozein erabaki, eta ez da zabaltzen adjudikazioa egiteko oinarri diren elementu guztietara. Aitzitik, beren izaeragatik iritzi tekniko bat behar duten eta ezagutza espezializatuak behar dituzten horiek soilik baloratuko ditu. Gainerakoan, jurisprudenzialak azpimarratzen du diskrezionalitatea, diskrezionalitate teknikoa barne, ez dela arbitrariotasunaren parekoa, eta guztiz zalantzan jar daitezkeela hura alegatzen duten erabakiak, diskrezio ahal oro baliatzea dakarten guztiak bezala.

Beraz, Auzitegi honen betebeharra da aztertzea ea eskaintzen balorazioa agirietan aurreikusitakoaren arabera egin den, baina ez da ahaztu behar gaia batez ere teknikoa dela. Gainera, aurkeztutako

como las de otros licitadores, sin haber tenido acceso a ellas.

Finalmente, el informe considera que la recurrente expresa su opinión parcial y subjetiva y no acredita ni delimita qué concretos aspectos de su oferta la harían merecedora de una mayor puntuación, lo que, unido a la doctrina de la discrecionalidad técnica, debe conducir a la desestimación del recurso, ya que se han respetado las normas de procedimiento y competencia, no se ha incurrido en error material o de hecho, ni ha existido arbitrariedad o discriminación al efectuar la valoración.

Apreciaciones del Tribunal

OCTAVO.- Como afirma el órgano de contratación en su informe, para la resolución del recurso se debe partir del principio de discrecionalidad técnica de la que están dotados los órganos de contratación para valorar los criterios no evaluables de forma automática.

De acuerdo con reiterada doctrina jurisprudencial, esta discrecionalidad técnica no ampara cualquier decisión que pretenda fundarse en ella, ni se proyecta sobre todos los elementos en cuya virtud deba producirse la adjudicación. Jugará, por el contrario, solamente en aquellos que por su naturaleza requieran de un juicio propiamente técnico para el cual sean necesarios conocimientos especializados. Por lo demás, la jurisprudencia insiste en que la discrecionalidad, incluida la discrecionalidad técnica, no equivale a arbitrariedad, y en que pueden ser perfectamente cuestionadas las decisiones que la invoquen, como todas las que supongan el ejercicio de cualquier potestad discrecional.

Por tanto, es deber de este Tribunal analizar si la valoración de las ofertas se ha hecho conforme a lo previsto en los pliegos, pero tampoco debe olvidarse que la materia es eminentemente técnica.



eskaintzak baloratzean, balorazioa formula matematiko baten bidez egiten ez denean, beti dago diskrezionalitate edo subjektibotasun tarte bat, saihestezina dena.

Eskaintzak baloratzea kontratazio mahaiari dagokio [SPKL, 326.2.b) artikulua]; izan ere, mahai horren balio-iritziek ziurtasun eta arrazoizkotasun presuntzioa dute, mahaikideen kualifikazio teknikoan eta inpartzialtasunean oinarritua, eta mahai horren erabakia zuzendu ahal izango da, soil-soilik, baldin eta egiaztatzen bada, ageriko akats baten ondorioz, hartutako irizpidea ez zela justifikatu, arbitrariotasunez jokatu dela edo baldintza agirietan xedatutakoa urratuz jardun zuela.

Balio judizioaren mende dauden adjudikazio irizpideak baloratzeko egindako txosten teknikoan, lehenik eta behin, adierazten da irizpide horiek zein diren eta zein haztaperen duten; ondoren, egiaztatzen da aurkeztutako eskaintzek preskripzio teknikoan pleguan eskatutako baldintzak betetzen dituztela; eta, azkenik, horietako bakoitzak emandako informazioaren arabera baloratzen dira. Balorazio hori azpi-irizpide bakoitzari buruz egiten da. Azpi-irizpide horiei dagokienez, klausula partikularren agirian aurreikusitako kalifikazioetako bat ematen da, dagokion puntuazioarekin, eta "*informazio gehigarria*" izeneko atal batean, balorazioaren oinarri diren eskaintzen alderdiak deskribatzen dira, eta merezi duten iritzia eta emandako puntuazioa justifikatzen duten arrazoiak adierazten dira.

Erabilitako balorazio metodoa modu berean aplikatu da eskaintza guztietan, eta, beraz, ezin da esan arbitrariotasunik edo diskriminaziorik egin denik lizitatzaileren artean; era berean, ez da ikusten erabakian akatsik egin denik, eta horiek dira epaimahai honek erabaki ditzakeen alderdi bakarrak.

BEDERATZIGARRENA.- Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean,

Además, en la valoración de las ofertas presentadas, cuando no se realiza a través de una fórmula matemática, hay siempre un margen de discrecionalidad o subjetividad que es inevitable.

La valoración de las ofertas corresponde a la mesa de contratación [artículo 326.2.b) LCSP], cuyos juicios de valor están dotados de una presunción de certeza y de razonabilidad, basada en la cualificación técnica e imparcialidad de sus miembros, y cuya decisión solamente podrá ser enmendada en el caso de que quede acreditado que incurrió, al tomarla, en error manifiesto, falta de justificación del criterio adoptado, arbitrariedad, o que actuó contraviniendo lo dispuesto en los pliegos.

En el informe técnico realizado para la valoración de los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor se indica, en primer lugar, cuáles son esos criterios y cuál es su ponderación; a continuación, se constata que las ofertas presentadas cumplen con los requisitos exigidos en el pliego de prescripciones técnicas, y seguidamente se procede a valorarlas de acuerdo con la información aportada por cada una de ellas. Esta valoración se realiza respecto de cada uno de los subcriterios, en relación con los cuales se otorga una de las calificaciones previstas en el PCAP, con la correspondiente puntuación, y en un apartado llamado "*información adicional*" se describen los aspectos de las ofertas sobre los que se emite la valoración y se expresa el juicio que merecen y las razones que justifican la puntuación asignada.

El método de valoración utilizado se ha aplicado de forma idéntica a todas las ofertas, por lo que no cabe apreciar arbitrariedad ni discriminación entre los licitadores, y tampoco se observa que se haya incurrido en error en la decisión, únicos aspectos sobre los que puede pronunciarse este Tribunal.

NOVENO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que



Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ERABAKITZEN DU

ACUERDA

Ezestea AVALON TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN SL enpresak kontratazioaren arloan jarritako errekurtso berezia.

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por AVALON TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN, S.L.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2021eko urriaren 11 / San Sebastián, 11 de octubre de 2021.